

# Uraren euskal agentziaren 2014KO Memoria



PERTSONA  
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ura da.  
GU GARA.



<b>1. AGURRA</b> .....	3
<b>2. AURKEZPENA</b> .....	4
<b>3. GOBERNU, KUDEAKETA ETA AHOULKARITZA ORGANOAK</b> .....	6
3.1. KUDEAKETA ORGANOAK.....	7
3.1.1 Eremuko zuzendaritzak.....	7
3.1.2 Arroen Bulegoak.....	7
<b>4. ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK</b> .....	8
4.1. PLANTILLA.....	8
4.2. URAREN AURREKONTUAK.....	8
4.2.1 Ustiapen-aurrekontua.....	8
4.2.2 Kapitalaren aurrekontua.....	8
4.3. URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KOMUNIKAZIOA.....	9
4.4. BERDINTASUN PLANA.....	9
<b>5. JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA</b> .....	10
5.1. HOBETZEKO JARDUKETAK.....	10
5.1.1 EAEko Hornidura eta Saneamenduko Esparru Araudia.....	11
5.1.2 Kudeaketa Sistema eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Zerbitzu-Katalogoa.....	11
5.1.3 Erakundeen artean ibaien mantentze lanak sustatzeko hitzarmenak.....	12
5.1.4 Isurketen analitikak kargatzeko tresna informatikoa.....	13
5.1.5 Landa-lanak kudeatzeko tresna informatikoaren diseinua.....	13
5.1.6 OBIEE – informazioaren kudeaketa dinamikorako tresna.....	14
5.1.7 Uren Erregistroa eta aprobetxamendu-emarien kontrola.....	14
5.1.8 Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa.....	15
5.1.9 Emari ekologikoen hitzartze prozesua.....	15
5.2. BAIMEN ETA EMAKIDEN ARLOA.....	16
5.2.1 Lan-baimenak Ur-Jabari Publikoan eta zaintza-aldean.....	16
5.2.2 Ur Jabari Publikoa okupatzeagatiko kanona.....	17
5.2.3 Jabari publiko hidraulikoaren okupazio-kanona.....	18
5.3. ISURKETEN ARLOA.....	19
5.3.1 Isurketa-baimenak.....	19
5.3.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua.....	20
5.3.3 Isurketak Kontrolatzeko Kanona.....	21
5.4. UR APROBETXAMENDUAK.....	22
5.4.1. Uraren kanona.....	23
5.4.2. Uraren erabileren inbentarioa.....	23
5.5. IBILGUAK MANTENTZEKO ZERBITZUA.....	24
5.6. IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA.....	26
5.6.1. Ikuskaritza-arloa.....	26
5.6.2. Laborategia.....	27
<b>6. PLANGINTZA ETA LANAK</b> .....	28
6.1. PLANGINTZA HIDROLOGIKOA.....	28
6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Berrikuspena.....	28
6.1.2 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak.....	29
6.1.3 Informazio-sistemak.....	30
6.1.4 Lankidetzeta-hitzarmenak.....	31
6.2. EBALUAZIOA.....	32
6.3. UHOLDEEI AURREA HARTZEA.....	34
6.3.1 Uholde-arriskuaren Ebaluazio eta Kudeaketa EAEn.....	34
6.3.2 Aurreikuspen eta Alerta hidrologikoen sistema (UHATE).....	38
6.4. LANAK.....	39
6.5. PARTEHARTZE, FORMAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA.....	40

# 1. Agurra



Lagunok:

Honen bitartez Uraren Euskal Agentziaren 2014ko memoria aurkezten dizuet, urtean zehar egindako lan eta ekintza nagusiak biltzen dituena.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari atxikia dagoen erakunde publikoa gara, eta Euskadiko uraren politika hezurmamitzea da gure zeregina. Hots, Euskadiko herritarren zerbitzura gaude, egokitu diguten eginkizuna betetze aldera: lurraldeko ur-masen babes eta hobetzearen alde egitea, zein ibaien hazkunde errepikari eta naturalen aurrean segurtasuna handitzea.

Erronka nabarmena dugu tinko eustea ur-ingurunearen alde jarduteri; hartara, egoera ekologiko ona lortu dezan: bermerik agerikoena bertan bizi garenon beharrianak asetze aldera.

Izan ere, "Ura da.Gu gara". Jakin badakigu-eta ura oinarrizko ondarea dugula; gure ongizatea lortzeko tentuz kudeatu behar dugula; haren egoera ekologiko ona sustatu behar dugula.

Orobat, generoen arteko berdintasunaren aldarria geure egiten dugu. 2014an berdintasun-plana abian jartzeari ekin diogu 2015ean bere osotasunean garatu ahal izateko, eta generoen arteko berdintasunaren alde egiteko ekarpen gisa; hartara, bidezkoago eta berdintasunezkoago euskal gizartearen lortze aldera.

URA Agentzian dihardugunok memoria hau irakurtzera gonbidatzen zaitugu; behin irakurketa amaiturik, bidali iezazkiguzu, mesedez, zure iritzi eta iradokizunak, ezbaierik gabe gure eguneroko kudeaketa hobetzeko lagungarri izango direlako.

IÑIGO ANSOLA KAREAGA  
ZUZENDARI NAGUSIA



## 2. AURKEZPENA

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia Uren ekainaren 23ko Uren 1/2006 Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

URA sortu zen da Europar Batasunaren Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunak betetzeko helburuarekin, hau da, 2015eko abenduaren 31a baino lehen azaleko zein lurpeko ur-masa guztiek egoera onean egon behar dutela aintzat hartuta. Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.

2014. urtean arlo honetan bai nabarmendu behar da URAREN estatutuen egokitzapenean lan egin dela, iaz zuzendaritze antolaketan egondako aldaketen ondoren gazteleraz dago 2015ean bukatuko dena. (25/2015 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituenak. <http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015001275>)

*25/2015 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa,  
Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituenak.*

# mintza gaitezen **uraz**

Gure xedeak:

## 1. Ur masen egoera ekologikoa zaintzea eta hobetzea

UREN KALITATE FISIKO-KIMIKOA HOBETZEA



TOKIKO FAUNA ETA LANDARETZA ZAINDU ETA BERE EGOERA HOBETZEA




URTEKO SASOI BAKOITZEAN IZAN BEHARREKO GUTXIENKO EMARIAK BERMATZEA




INGURUNE HIDRIKOA LEHENGORATZEKO URRATSAK: JATORRIZKO MORFOLOGIAREN BILA



## 2. Uholde arriskua kudeatu, herritarren segurtasuna bermatzeko



HIRIGINTZA PROIEKTU BERRIAK KOKATU EGUN UR GORALDIETATIK KANPO DAUDEN GUNEETAN







DAGOENEO ERAIKITAKO EREMUEAN, UR GORALDIEN ERAGINA MURRIZTEKO LANAK



UHOLDE AURREIKUSPENA ETA ALERTA SISTEMAK ETENGABE HOBETZEA

## 3. Uraren esparruan eskumenak dituzten gainontzeko administrazioekin, lankidetzaz sustatzea




# 3. GOBERNU, KUDEAKETA eta AHOHKULARITZA organoak

URA Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, 2006ko ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrak onartutako Uraren Euskal Legeak sortua. Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago, eta 1994tik darama uraren kudeaketan, hain zuzen ere eskumenaren eskualdatzea gertatu zen uneaz geroztik. Nolanahi ere esan beharra dago URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URA agentziak parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

- Erabiltzaileen Batzarra, Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak biltzen dituen.
- Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hartzen dute parte.

## Pantaila osoan ikusteko



# 3.1 KUDEAKETA ORGANOAK

## 3.1.1. EREMUKO ZUZENDARITZAK

Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak hiru Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mende:

- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza



## 3.1.2. ARROEN BULEGOAK

Bestalde, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoako Arroen Bulegoa (Gasteiz). Era berean, Lasarten du laborategia.

### Parte-harte eremuak eta unitate hidrologikoak



# 4. Administrazioa eta zerbitzuak

## 4.1 PLANTILLA

Uraren Euskal Agentziaren lantaldea 2013ko abenduaren 31an, honako hauek osatzen dute

KATEGORIA	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Zuzendaritza Nagusia	1		1
Arloen Zuzendaritza-Bulego buruzagitzak	6	2	4
Teknikariak eta bitarteko agintariak	113	42	71
Administrariak	37	32	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>157</b>	<b>76</b>	<b>81</b>

## 4.2 URAREN AURREKONTUAK

### 4.2.1. USTIAPIEN-AURREKONTUA

GASTUAK	2014
LANGILEEN GASTUAK	7.913.587
FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK	7.838.184
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.751.771</b>
SARRERAK	2014
EJko USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK	11.217.431
SARRERA PROPIOAK	4.534.339
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.751.770</b>

### 4.2.2. KAPITALAREN AURREKONTUA

INBERTSIOA	2014
BEREZKO ONDASUNAK	17.172.775
BESTE ERAKUNDE BATZUETARAKO KUDEATUTAKO ONDASUNAK	10.615.203
HIRUGARRENEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	290.618
<b>GUZTIRA</b>	<b>28.078.596</b>



## 4.3 uraren euskal AGENTZIAREN KOMUNIKAZIOA

Uraren Euskal Agentziaren helburu nagusietako bat Komunikazio eraginkorra eta gardena lortzea da.

Helburu horren isla izan zen webgunean gardentasunera bideratutako atari bat irekitzea herritarrentzat interesekoak izan daitezkeen informazio eta agiriekin; atari hori aldiro eguneratzen da garrantzizkoak deritzogun agiriekin. Gardentasunaren arloan lan egiten duten erakunde independenteek ondo baloratu dute URaren lan hori.

Lan-ildo horrek orain arte **kanpo-komunikazioan** egiten zena indartzeko balio izan du:

**Prentsa kabinetea**, horren bitartez Uraren Euskal Agentziaren jardueri buruz informatzen jarraitzen da. Horrekin batera komunikabideen kontsultak erantzun dira, 120 urte honetan.

**Kontsulta-buzoia:** horren bitartez erantzuten dira herritarrek Agentziara helarazten dituzten kontsultak, iradokizun, kexak etab. Aurten 194 kontsulta.

**Web-gunea:** Web orriaren berriztatzea 2014an bukatu da, eta hobekuntza nabarmena suposatu du agentziaren lana azaltzeko orduan eta herritarrei hurbiltzeko ordua. Bisita kopurua 50.000koa inguru izan da.

**Sare sozialak:** 2014an dagoeneko: twitter, you tube edo flickr bezalako sare sozialetan hasitako lana jarraitu egin da eta bloga elikatzen jarraitu dugu, bertatik URaren lanari jarraipena egiten jarraitzeko formatu desberdinen bitartez: testua, argazkiak, bideoak...

Horrekin batera, aurten harpide interesdunei hilabetero bidaltzen zaien *newsletter*a abian jarri da. Aldizkari horretan URaren azken albistean eskaintzen dira eta martxan dauden lizitazioak.

## 4.4 berdintasun PLANA

URAK aurten berdintasunaren lan-ildo hartu du, etorkizunera begira erakundearen konpromiso bezala barneratzeko. Baina ez bakarrik Emakunde bezalako erakundeen kanpainen kide izaten, edo langileei hainbat arlotan generoaren ikuspuntu formakuntza ematen, aurreko urteetan ere egin dugun bezala. Urrats bat gehiago eman nahi izan dugu generoaren ikuspuntua erakundearen modu orokor eta zeharkako batean hedatzeko.

Hartara, hurrengo urtean berdintasun plan bat izateko asmoarekin 2014an URAn emakume eta gizonen arteko berdintasunaren diagnosi bat egin da eta lan talde bat osatu da, **Berdintasun taldea**, bide horren sustatzailea izan dadin eta prozesuaren fase guztietan era aktiboan parte hartzeko.

Horregatik guztiagatik asmo handiko proiektua dela uste dugu eta hurrengo hilabeteetan fruituak ematen hastea gustatuko litzaiguke.

# 5. Jabari Publikoaren Kudeaketa

## 5.1 Hobetzeko JARDUKETAK

2014. urtean, Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzatik honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- EAEko Hornidura eta Saneamenduko Esparru Erregelamendua
- Kudeaketa Sistema eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Zerbitzu-Katalogoa
- Toki-Administrazioekin ibilguen mantentzean elkarlanean aritzeko hitzarmenak
- Isurketen analitikak kargatzeko tresna informatikoa.
- Landa lanak kudeatzeko tresna informatikoaren diseinua
- OBIEE – informazioaren kudeaketa dinamikorako tresna
- Uren Erregistroa eta aprobetxamendu-emarien kontrola
- Aprobetxamendu nagusien erregularizazioa
- Emari ekologikoen hitzartze-prozesua

## URAREN AHOLKUA

Ikusi

## BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

### 5.1.1. EAEko hornidura eta saneamenduko ESPARRU ARAUDIA

2014an zehar Esparru araudia adostuaren testuan aurrera egiteko asmoarekin 5 mahainguru antolatu dira honako gai zehatzen inguruan

- Kostuen eredua (2 Tailer).
- Ordainsariak lortzeko baldintzak.
- Zerbitzuen Mapa.
- Azpiegituren Plangintza.

Mahainguru horietan araudi berri horiengatik eraginda izango diren eragile nagusiek parte hartu dute: Foru Aldundiak, Hornidura eta Saneamenduaren kudeatzaile nagusiak eta Toki-Administrazioaren ordezkariak, EUDEL edo ACOA horien artean.

Mahainguru horietan ondorioztatukoak eta bildutako ekarpenak aintzat hartuta, EAEko Hornidura eta Saneamenduko Esparru Araudiaren behin behineko testua gainbegiratzen ari gara.

### 5.1.2. Kudeaketa sistema eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako ZUZENDARITZAREN ZERBITZU-KATALOGOA

2014an lan hau hasi da: Kudeaketa sistemako agirien egituratze eta normalkuntza  
Horren barne, honako lan hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Lan jardueren baimenak emateko prozedurako agirien egituraketaren analisi- eta hobekuntza-proposamenak.

Aurretik egindako zirriborroak aztertu dira behin behineko agiri bat egituratzeko, kontuan izanda hurrengo puntuaren kudeaketa sistemaren agirien egitura. Martxoan Lan Baime-  
nen Prozedura Orokorra onartu zen.

- Kudeaketa sistemaren agirien egitura orokorraren inguruko analisi eta proposamenak

Atal honen barruan egindako lanen artean daude: Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren agirien egitura onartu da, laburbilduz honako agiri taldetan antolatu dira.

- Jabari Publikoaren Kudeakeratako eskuliburua
- Prozedura Orokorrak.
- Prozedura zehatzak.
- Instrukzioak.
- Irizpideak.
- Laguntza agiriak.
- Txantiloak, formatuak edo ereduak.
- Erregistroak.

Apirilean onartu zen Kudeaketa Sistemako agirien egitura eta Administrazioaren Prozedura Orokorra.

- Txantiloak antolatzeko irizpideak aztertu eta zehaztu.

Honako lan hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Txantiloak hobeto kudeatu eta antolatzeko irtenbide informatiko baten analisia. Lan horren ondorioz EJIEk aztertu egindubereziki txantiloien dinamika hobetzeko

bideak, aurreko txantiloien ereduak gorde ahal izateko (Txantiloien historikoa), eta horrek batera egitura berri bat egin da, erraztutako oinarriko hezurduraren arabera aurrekari eta baldintza partikularrak aurretik zehaztutako tauletatik hartuz.

- Ur-Jabari Publikoan lanak egiteko baimenen baldintza partikularrak batu eta kategorizatu. Horretarako bi datu-base sortu dira “aurrekariak” eta “norbanako baldintzak” batzen dituen; horiek kargatu egiten dira txantilioiaren oinarriko eta erraztutako “Hezurdura” batean
- Taula berria Lan-eremuaren ezaugarri eta datuekin.
- Txantilo berriak: txosten teknikoa, Ebazpen proposamena eta Ur-Jabari Publikoaren Ebazpena.

Lan hauei lotuta eta URaren zuzendaritzetan administrazioa errazteko helburuarekin Agentziaren zerbitzu-katalogo proposamen bat egin nahi da. Lan horien barruan Zuzendaritza honetan egiten diren lanen birpaso bat egin DACIMAREN onespina jaso dezan.

Zerbitzu-katalogoa zeharkako baliabide bat izango da Eusko Jaurlaritzaren Sail desberdinetan abian jarri dena, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu guztiak zerrendatzeko asmoarekin, eta horien ezaugarriak batzeko asmoarekin.

Zerbitzu-Katalogo horren helburu nagusiak dira:

- Lehenik, zerbitzuak definitzea, bere hedapenerako eta egoera egokietan integratzeko beharrezkoak direla ikusitako datuetan oinarritua. Zehaztu egin

dira, beraz, honako datuen arabera: antolaketa egitura, familia, dagokion araudia, agiri-seriea, loturiko agiriak, digitalizazio-maila, erabilitako azpiegitura-informatiko zerbitzuak, ...

- Bigarrenik, zerbitzuen digitalizazio-prozeduren hobekuntza eta automatizazioa, egun dauden laguntzarako plataforma teknologikoak erabiliz (Platea-Interneten, Platea-izapidetzea, Dokusi) eta agertu daitezkeen beste tresna berri batzuk (paper gabeko bulegoa). Horiek horrela beharrezkoa da Jabari Publikoa kudeatzeko Zuzendaritzaren prozedura guztiak katalogoan egotea tramitazio elektronikoa abian jarri ahal izateko.

### 5.1.3. erakundeen artean ibaien mantentze lanak sustatzeko HITZARMENAK

2013ko azaroan EAEko Toki-Erakunde guztiei (Udal eta Administrazio-Batzarrak) gutun bat bidali zitzaion honako xedeekin: URAK ibilguen mantentze-lanen arloan dituen eskumenak jakinaraztea; mantentze-lanen zerbitzua existitzen dela ezagutaraztea; beste eragile publiko edo pribatuek ekiteko dituzten aukerak aipatzea aurretik baimena eskatuta; hiriguneetan dauden ibai tarteetan ibilguen mantentze horretan, ezagutaraztea Lurralde antolaketa eta hirigintzan eskumenak dituzten beste erakunde batzuk dituzten

## URAREN AHOLKUA

Ikusi

betebarra; azkenik. Hitzarmenak sinatzeko proposamena luzatzea ibilgu eta ibaiertzetan abian jarri beharreko ekimenak ahalik hoberen aurrera eramateko.

2014ko azaroan era zuzen batean edo zeharka bada ere (udalaz gaindiko erakundeen bitartez) interesa agertu zuten Udalei (49 orotara) elkarlanean aritzeko protokolo bat bidali zitzairen, Uraren zuzendari nagusiak sinatua. 2014a bukatu baino lehen 8 Toki-Administraziok erantzun zuten hitzarmena sinatuz.

### 5.1.4. Isurketen analitikak kargatzeko tresna informatikoa

2014. urtearen amaieran ia bukatua geratu da Isurketa Analitikak Kargatzeko Atari pribatua eraikitze eta abian jartzeko lanak, laburki esanda "Isurketen Analitika-Karga".

Horrela sarrera bateratu bat ematen zaie [www.uragentzia.euskadi.eus](http://www.uragentzia.euskadi.eus) kanpo-erabiltzailei, URAREN atari pribatu batera (erabiltzaileak- baimendu ondoren- erabili ditzakeen aplikazioak ikusgai izango ditu). Horren bitartez telematikoki bidali ahal izango dituzte isurketak baimenetan derrigorrezkoak diren autokontrolak. Haste-ko bakarrik jarri dira martxan 2000 biztanle baliokide baino gehiago dituzten hiri-guneen kudeatzaileen autokontrolen kargak.

Halaber, aplikazio berriak kargatu ahal izango dira URAK egiten dituen analitikak, eta agentziak kontratatutako kanpo-laboregietatik egindakoak.

Datu horien kargarekin eta OBI tresna garatzearekin batera, era eraginkor batean kudeatuko ahal izango dira txosten eta kontsultak: bai barnerako egiten direnak, bai hainbat erakunde eskatutako kanpo txostenak —zuzentarauaren europarren arabera—, edo itsasora egindako isurketetarako OSPAR hitzarmenaren harian, isurketa jasotzen duen ingurunean duen eraginaren inguruko kontrola.

## 5.1.5. Landa-Lanak kudeatzeko tresna INFORMATIKOAREN DISEINUA

Tresna honen funtzio nagusia da landa lanen erregistroaren zentroa izatea, isurketa, lanak eta emakiden ikuskaritzari lotura, bai emandako baimenak betetzen direla egiaztatze orduan, bai baimenik gabeko kalteak antzemateko orduan. Era berean ikuskariek haien landa lanen harira PDAtan jasotako informazioa bildu beharko du.

Ondoren sistemaren helburuak aipatzen dira, laburki esanda ondoren lanak era eraginkorrean burutzea:

- 📌 **Espedienteen harira ikuskaritzen urteko plana egitea.** Isurketa, lan zein emakidetan, espediente kudeatzailean bildutako informazioan oinarrituta.
- 📌 Ikuskaritzetan lortutako informazioa jaso eta bildu, hala nola bisitaren datu orokorrak, zein datu teknikoak edo ikuskaritza mota desberdinen txostenak.
- 📌 **Ur-jabari publikoan baimenik gabe egindako ekintzen informazioa** jaso, datu orokorrak zein dagozkien datu teknikoak..
- 📌 **Sarrera erraztu bildutako informaziora,** datu horien kudeaketa ahalbidetzeko.
- 📌 **Beste sistema batzuekin uztartzeko bideak** eskaini (adibidez: Sistema analitikoak, Espediente kudeatzailea, GIS, Erakunde Kudeatzailea) besteek bertatik beharko luketen informazioa hartu ahal izateko, edo azken honen kudeaketarako behar litezkeen datuak bilatu ahal izateko.

Urriaren 20an Planen modulua aurkeztu zitzairen URaren erabiltzaileen ordezkari talde bati probak egin ahal izateko.

Abenduaren 10an ikuskaritza prozeduren eta inbentario-ikuskaritzaren modulua URaren erabiltzaileen ordezkari talde bati aurkeztu zitzairen probak egin ahal izateko.

Tresna hau 2015ko lehenengo hiruhilabetekoan abian izan daitekeela aurreikusten da.

### 5.1.6. OBIEE - Informazioaren kudeaketa DINAMIKORAKO TRESNA

2014an zehar informazioaren kudeaketa dinamikoa egiteko tresna lantzeko kontratua egin da. Horren bitartez txosten eta kontsultak errazago lortuko dira.

- Lehenengo fase batean izapidetze administratiboaren inguruko txosten eta kontsultak egingo dituen modulua landu da, espediente kudeatzaileko datuetan oinarritutakoa.
- Horrekin batera isurketa datuen txosten eta kontsultak egingo dituen modulua osatuko da. Kasu horretan informazioa espediente kudeatzailetik eta analitikak kargatzeko aplikaziotik hartuko ditu.

Bi modulu hauen txostenak 2015ko lehenengo hiruhilabetekoan prest egotea aurreikusten da.

### 5.1.7. Uren erregistroa eta APROBETXAMENDU-EMARIEN KONTROLA

2014an zehar, eta URAk Uren Erregistro propio izateko obligazioa betetzeko helburuarekin, behar du azalpena bukatzeko Uren Erregistroaren derrigorrezko

atalen analisisa eta deskribapena egin da. Erregistro hori URaren baliabide informatiko berria izango da. Honako lan hauek nabarmendu behar dira:

- Sistema definitzea.
- Eskakizunak ezartzea.
- Ezagutzen hedapena, onespena eta transferentzia.
- Uren Erregistro Orokorra garatu eta ezartzeko bidean laguntzea

Halaber, 2014an zehar laguntza-ekintzak hasi dira emarien neurketa- eta erregistro-gailuen kontrolerako eta maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 agindurako egokitzeko lanetarako. Honako hauek dira mugarri nagusiak:

- Neurketa- eta erregistro-gailuak ezartzeko irizpide teknikoak lantzea.
- Prozedura eta eredu administratiboak diseinatzea.
- Formakuntza teknikorako jardunaldiak.

Lan horien jatorria da uraren kudeaketa egokia egin ahal izateko emarien eta ur-jabari publikotik hartutako ur-kopuruaren inguruko datu fidagarriak izateko beharra, ekainaren 7 ko 2013/400 Errege Dekretuak arautzen duena jarraiki, Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Espainiar tarteko Plan Hidrologikoa onartzen duena.

Hartara URAk beharrezkoa ikusi du irizpide batzuk zehaztu eta finkatzea neurketa- eta erregistro-gailu horiek ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen eremuan.

Era berean beharrezkotzat jo da URaren ikuskari taldeari formazio tekniko egokia eskaintzea, merkatuan dauden hainbat gailuk izan dezaketen konplexutasuna dela-eta. Emarien kontrolerako lan horiek 2015ko apirilean amaituak egotea aurreikusten da.

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi

## 5.1.8. Aprobetxamendu nagusien ERREGULARIZAZIOA

2014an zehar ofizioz hainbat aprobetxamendu garrantzitsuren erregularizazioa egin da:

Bizkaian izapidetutako aprobetxamendu nagusiak honako hauek izan dira:

- Gernika Sistema
- Buspemun Sistema (Busturia, Mundaka eta Sukarrieta)
- Forua Sistema
- Bermeo Sistema
- Bakio Sistema

Gipuzkoan Bizkaian izapidetutako aprobetxamendu nagusiak honako hauek izan dira:

- Urkulu Sistema (Debagoiena).
- Ibaieder Sistema (Urola Ertain-Baxua eta kostaldea).
- Kilimoi (Deba Ertaina eta Debabarrena).
- Aixola Sistema (Eibar).
- Barrendiola Sistema (Urola Garaia).

## 5.1.9. Emari ekologikoen HITZARTZE PROZESUA

Arlo honetan 2014an zehar Plangintza eta Lanen zuzendaritzarekin elkarlanean hainbat ekintza eraman dira aurrera, esate baterako:

- Unitate hidrologiko bakoitzaren analisia egin, eta lehenatasunak ezarri. 2014an Oka, Urola, Oiartzun, Lea, Artibai, Butroe, Barbadun, Oria, Urumea eta Bidasoa arroak aztertu dira.

- Hitzartu beharreko inskripzio edota erabilera pribatiboen eguneratzea.
- Zalantzak sortzen dituzten aprobetxamenduen ikuskaritza.

Emari ekologikoen ezarpena hitzartze-prozesu baten bitartez garatzen ari da. Prozesu horrek kontuan hartzen ditu egungo erabilera eta eskariak, eta horien emakida erregimena zein jarduera egokiak. Hitzartze-prozesuaren helburua da uztartzea ura erabiltzeko eskubideak, eta emari ekologikoen erregimena.

Emari ekologikoak ezartzeko hitzartze prozesuaren helburuak honako hauek dira:

- Hidrologia eta ingurumena bere osotasunean baloratzea.
- Erregimenaren behin-betiko ezarpena tekniko, ekonomiko eta sozialki bideragarria ote den zehaztu.
- Ezartzeko eta moldaerazko kudeaketa egiteko plan bat proposatu.

Hitzartze- eta ezartze-prozesu horrek aurretik existitzen diren erabileretarako ere baliogarria izango da, baina ez ditu aldatuko etorkizuneko erabilerei ezartzen zaizkien baldintzak (Plan hidrologikoan zehazten direnak).



## 5.2 Baimen eta emakiden ARLOA



### 5.2.1. Lan-baimenak ur-jabari PUBLIKOAN ETA ZAINZA-ALDEAN



**Lan-baimenen helburu nagusia honakoa da: jabari publikoan edo horren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egiteko baldintzak ezartzea; hartara, ur-masak honda daitezten saihesteko, eta hobe daitezten ahalegintzeko. Betiere uholde-arriskugarritasuna aintzat hartuta.**

Halaber, arroen bulegoetako arduradunek administrazio edota partikularrek egin ditzaketen jardun eta obren baimenak izapidetzen dituzte, lanon kontrola eta jarraipena barne: jakina, jabari publiko hidraulikoan edota ibilgu-zaintzako eta zortasun-eremuetan eginbeharrekoak.

2014. urtean lanak egiteko 548 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 539 ebatzi. Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 407 kontsultari eman zaie erantzuna, aldez aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan. Horietatik 395 erantzun dira.




## URAREN AHOLKUA

Ikusi

Gainera, arroen bulegoek guztira 24 hirigintza-txosten hasi dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzuteko edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzuteko: 24ok ebatzi dira.

2014. urtean, Zadorra Sistemako urtegi-tako nabigazioaren jarraipena egin da, eta udan bereziki Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak zaindu dira. Mediterraneoko arroetako bulegoak nabigazioko 86 erantzukizun-aitorpenen jarraipena egin du, beste 2 Mendebaldeko Kantauriar arroen bulegoan, eta bat Ekialdeko Kantauriar arroen bulegoan.



Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 159 salaketa jaso dira guztira.

Indarreko legegintza-esparruak xedatutakoari jarraiki, 44 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

Zeregin horiez gain langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko egindako lan ugariak izan dira.

## 5.2.2. Lan baimenak ITSAS LEHORREKO ZORTASUN-EREMUAN

**Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzeaz gain, administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuetan egindako lan eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.**

2014. urtean 62 espediente hasi eta 45 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 149 kontsulta-espediente eta txosten-eskera hasi eta 62ri eman zaie erantzuna, aldeztatik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 20 salaketa jaso dira guztira.


Gainera, indarreko legegintza-esparruaren barruan, 2 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota itsas-lehorreko jabariari eta zerrenda elkartuei eragiteagatik.

## 5.2.3. UR Jabari Publikoa OKUPATZEAGATIKO KANONA


Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko barne arrotako kanona likidatzen du.

2015. urtean, 2014ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 140.334 € .bilduko direla aurreikusten da.

### Okupazio-kanonaren bilakaera Pantaila osoan ikusteko




### UJP Pantaila osoan ikusteko



\*2012tik aurrera datuak espediente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

BA AL ZENEKIEN...?

### ILZ Pantaila osoan ikusteko



\*2012tik aurrera datuak espediente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

Ikusi


## 5.3 Isurketen arloa

### 5.3.1. Isurketa-baimenak

**Isurketa-baimenak izapidetuz honakoa lortu nahi da: jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.**

Uraren Euskal Agentziaren Arroen Bulegoek ibilgu publikora isurtzen duten edo lurrera iragazten diren arazketa-sistemak ikuskatzen jarraitu dute.

2014an isurketak baimentzeko edo berraztertzeko (indarraldia iraungitzean) 179 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute. Bestalde, 198 isurketa-baimen ebatzi dira.





Horrez gain, partikularren, administrazioen edo enpresen 90 kontsulta jaso dira eta 40 erantzun, aurretik aipatutako arloetan egin beharreko ekintzei buruz. Beste alde batetik, partikularren 223 salaketa jaso dira lanak administrazio-baimenik gabe egiteagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

27 zehapen-espeditente ireki dira 2014an, isurketen arloko beren eskumen-eremuaren barnean indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 2088 isurketa-baimenen jarraipena egin, eta hondakin-uren araztegi (HUA) eta isurketa-puntu nagusien ustiaketa-txostenak aztertu dira; Izan ere, arazketa-sistemak gaizki ibiliz gero ur-jabari publikorako kaltegarri gerta daitezke. Batez ere, 2.000 biztanletik gora duten populazioak izan dira kontuan.

### 5.3.2. INGURUMENeko BAIMEN BATERATUA

Bestetik, ingurumena oro har babesteko helburuarekin Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen 16/2002 Legeak: hartara, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean. Hala hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan, nola ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.


2014an zehar ingurumen-baimen integratuaren 12 ebazpen-proposamenetan berritan parte hartu dugu, eta beste 16 ebatzi dira, isurketa UJP edo ILZra egiten dutenak., eta horien jarraipena egiten ari gara

## URAREN AHOLKUA

Ikusi

2014ko Isurketa baimenak


Pantaila osoan ikusteko



\*2013tik aurrera datuak espeditente kudeatzailetik ateratzen ditugu.

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi




### 5.3.3. ISURKETAK KONTROLATZEKO KANONA

Ur-Jabari Publikora egiten diren isurketengatik isurketa kanona ordaintzen da, jabaria zaindu eta hobetzera bideratua. Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroen kanona baino ez du likidatzen.

Jarraian, Isurketaren Kanonaren bilakaera azaltzen da.

Isurketa kanonaren eboluzioa

Pantaila osoan ikusteko



## 5.4 ur aprobetxamenduak


**Ur-aprobetxamenduetarako emakidek honakoa lortu nahi dute: jabari publikotik ura hartzeko betebeharreko baldintzak ezartzea, lehenetasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.**

Mendebaldeko eta Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen, eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute. 2014. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 50 espediente berri hasi dira eta 62 ebatzi dira.

Bestalde, epealdi berean 42 erregularizatzeko-espeditente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko: 27 ebatzi dira.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 44 espediente abiarazi dira epealdi honetan eta 40 erantzun dira.

Azkenik, indarreko legegintza-esparruaren barruan, partikularren 8 salaketa jaso dira eta 3 ur-aprobetxamenduen inguruko zehapen-espeditente abiatu dira.



## 5.4.1. Uraren KANONA

**EAE n uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek Plangintza Hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.**

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAE n, uraren erabilerak ingurumenari eragin diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarriko zaie kanona:


- Hirugarren batzuek hornitu arren, erabiltzailearen ur-kontsumoari.
- Lurrazaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.

Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa kontsumitutako m<sup>3</sup> bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera badira; horien arteko nabarmenena etxeko erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa). Bestalde, hobariak ere eska daitezke: hainbatetan zerga-oinarriaren %95era iritsi daiteke.

## BILDUTAKO DIRUA

2015. urtearen hasieran, guztira 1.942.955,62 €-ra iritsi dira 2014. Ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbatekoa gutxi berru nabarmen handitzea, aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2014ko ekitaldian guztira 2.809.520 €. bilduko direla uste baita.



(\*1) Aurreikusitako kopurua behin urteko jarduera bukatutzat eman eta gero.

(\*2) Aurreikusitako kopurua oraindik urteko-jardueraren ordaintze epea irekia baitago.

## 5.4.2. Uraren erabileren INBENTARIOA

Uraren Euskal Agentziaren Uraren Erabileren inbentarioan (IUA) biltzen da EAE mailan uraren aprobetxamenduaren inguruko informazioerik esanguratsuena, kontuan izan gabe bere egoera administratiboa edo eskumen-eremua. Helburua da kontsultak egin ahal izatea eta lortutako informazioa esportatzea.


## 5.5 Ibilguak mantentzeko ZERBITZUA

Ibilguen mantentze zerbitzuak egin beharreko lanen urteko plangintza egin da. Koordinazio bileratan hitzegindako gai nagusiak honako hauek izan dira:

- 2014. urtean egindako jarduketaren txostena.
- Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2015. ekitaldirako programa.
- Jarduketaren lehentasuna ezartzeko irizpide komunak adostu.
- Ur Jabari publikoaren ibilgu eta ibaiertzetan lanetan elkarlanean aritzeko protokoloa prestatu.
- Beste administrazio batzuekiko koordinazioa, eta bereziki espezie inbaditzaileak eta landaketak kentzeko proiektuetan.
- Mantentze-lanen kontratu berri baterako pliegoak prestatu.
- Mantentze-lanen datu-base berri bat prestatu.
- Kontratuaren jarraipenerako mahaia sortu.


2014an zehar zerbitzuaren esleipen bakarra eman izana, hiru lotetan, lan hauetarako ziurtagiri gutxiago egin behar izatea ekarri du, eta guztira 2.860.197,77 euroko aurrekontua izan du. Aurrekontuaren %34 ekosistemen hobekuntzarako ekintzetan inbertitu da (ingurumena lehengoratu, landaketak, inbaditzaileak eraztea) eta %61 uholde arriskua murriztera bideratutako ekintzetan (programatutako mantentzea eta ezustekoak)

### Ubideak mantentzeko lanetan inbertsioa







Arro-bulegoka eginiko ibaien mantentze-lanen banakapena



Mendebaldeko arroen bulegoa



Ekialdeko arroen bulegoa



Mediterraneako arroen bulegoa

## 5.6 IKUSKARITZA ARLOA ETA LABORATEGIA

### 5.6.1. IKUSKARITZA- ARLOA

Urak Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Ikuskaritza zerbitzuak 2014an egindako ekintzen artean nabarmendu behar dira EAE osoan trenbide sarearen eraikitzearen ikuskaritza, Urretxuko, Ermua, Bermeo edo Elorrio aldabideen eraikitze lanen jarraipena, Autzaganeke lanak, Arabako haranen ureztatzea, edota EAE osoan mantentze lanen azterketa.


Nabarmentzekoa da, halaber, SOS Deiak erakundea abisuen arretaren arloan egiten ari den lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko eta eguneko edozein orduan, lanegun edo jaiegunetan eskaera guztiei erantzunez. Gutxi gorabehera horrelako 251 abisuri eskaini diete arreta.

## URAREN AHOLKUA

Ikusi

### SOS Deiatik jasotako abisuek

Pantaila osoan ikusteko



Ur-ikuskatzaileek Jabari Publikoak jasaten dituzten presioen jarraipena egin dute: obrak eta jarduerak, isurketak edo ur-aprobetxamenduak. Halaber, ikuskaritza zerbitzua obra baimenen eta emakiden jarraipen eta erregistroan jardun dira.

Mantentze zerbitzutik egindako ekintza ororen etengabeko jarraipena egin dute eta baita ibilguen mantentzerako ekintzak proposatu ere.



Azkenik, jabari publiko edota itsas-lehorreko zortasun eta babes eremuan antzemandako edozein kalteren erregistroa egin da.

## 5.6.2. Laborategia

2014. urtean, URAk Lasarten duen laborategian 1092 lagin aztertu dira guztira, eta horietatik 717 Ekialdeko Kantauriko Arroei dagozkie, horietatik 479 laginketa programatuetatik ateratakoak, 181 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak eta 57 ohiz kanpoko isurien ondorio dira. Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremutik 508 lagin aztertu dira, eta horietatik 214 laginketa programatuetatik ateratakoak, 260 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak eta 34 ohiz kanpoko isurien ondorio dira.

Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, 05EB, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Administrazio hidraulikoaren Erakunde Lagun baten zerbitzuak kontratatu dira Mediterraneoako Arroetako Bulegoko langileek hartutako hondakin-uren laginen karakterizazio analitikoa egiteko. Erakunde horren bitartez 668 lagin aztertu dira, eta horietatik 132 laginketa hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak dira.





Ikusten denez 2013an, Hasierako Dokumentuak deritzenak adostu ziren; alegia, Plangintza Hidrologikoaren lehenengo fasea. Horrekin batera “*Uraren kudeaketaren arloko Gai Nagusien Behin Behineko Eskema (aurrerantzen EPTI)*” berrikuspenerako proposamen bat egin da, Kantauri Konfederazio Hidrografikoarekin elkarlanean egindako agiria. Agiri horretan Demarkazioan aurki daitezkeen arazo nagusiak zehazten dira eta horiek konpontzeko irtenbideak.

EPTIaren harira, **2014an zehar**, abian jarri da, betiere Kantauri Konfederazio Hidrografikoarekin koordinazioan, Kontsulta eta Informazio Publiko epea, 2013ko abenduaren 30tik, 2014ko ekainaren 30era. Era berean, parte hartze prozesu aktibo bat zabaldu da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografiko osorako, URA eta Konfederazioak elkarlanean antolatutakoa.

EPTIaren kontsulta eta parte-hartze prozesuak bi lan ildo osagarri izan ditu. Alde batetik, tresna elektronikoak web, foro elektronikoak, sare sozialak, etab.; bestetik, bertaratzeko tailerrak 2015-2021 ziklorako demarkazioan antzemandako arazoetaz eztabaidatzeko. Tailer horien bitartez eragile interesatuek plangintza hidrologikoan era aktibo batean parte-hartzeko aukera izan dute, arazoak aztertu eta konponbideak bilatze aldera.

Kontsulta eta Informazio publikorako epea amaitu zenean aztertu egin ziren jasotako ekarpen eta iradokizunak: hala foro eta tailerretan sortutakoak, nola URA eta Kantauri Konfederazio Hidrografikoari ondoren helarazitakoak. Ontzat emandakoak kontuan izan ziren EPTIaren edukia aberastu, osatu eta zuzentzeko asmoarekin.

Horiek guztiak kontsolidatu eta Uraren Kontseiluaren aldeko txostena jaso ondoren, Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarrak onartu egin du Gai Nagusien Eskema 2014ko urriaren 6ko batzarrean.

Behin plangintza hidrologikoaren berrikuspeneraren bigarren etapa hori amaituta, hirugarren mugarrria “*Plan Hidrologikoaren Proiektuaren Proposamena (2015-2021 Berrikuspenera) Kantauri Ekialdeko Demarkaziorako, EAEko Barneko Arroen Eremuan*” prestatzea izan da, URAK eta Kantauri Konfederazio Hidrografikoak

elkarlanean egindakoa. Agiri hau idazteko oinarria Gai Nagusien Eskeman ezarritako irizpideak izan dira. Horretarako beharrezkoa izan da ur-masen mugak birpasatzea, eta horien karakterizazioa; egungo baliabide hidrikoen kopurua eta egungo zein etorkizuneko ur-eskariak eguneratzea; Babestutako Eremuen Erregistroa eguneratzea; presioen azterlanak; ur-masen eta babestutako eremuen egoeraren eguneratzea; edota planaren neurri programa eta araudia eguneratzea.

Ardura berezia eskaini zaio Uholde Arriskuen Kudeaketarako Planarekin koordinatu eta integratzeari. Koordinazio hori are beharrezkoagoa da bi plangintzen helburuak uztartuko badira: ur masen egoera ona lortzea eta uholde arriskua murriztea. Horrela, bi planek ingurumen ebaluazioa estrategikoaren izapidea batera egiteaz gain, parte hartze prozesuak partekatuko dituzte, eta oniritzia eman behar duten hainbat organoetan ibilbide komuna egingo dute.

Uraren Euskal Agentziak, bere zuzendari nagusiaren 2014ko abenduaren 18aren Ebazpenaren bitartez, informazio eta kontsulta prozesuak abian jarri ditu; alde batetik, Plan Hidrologikoaren Proiektuaren Proposamenaren kontsulta publikoa (2015-2021 berrikuspenera), 6 hilabetez; eta bestetik Ingurumen-jasangarritasun Txostenarena

## 6.1.2. UR-masen egoeraren jarraipena

### EGITEKO SAREAK

2014. urtean, orobat, EAEko ur-masen egoeraren **jarraipen-sareei** dagokien ustiapenarekin jarraitu da, eta honako proiektu hauei dagozkie.

- EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko barrualdeko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko lurpeko uren kontrol-sarea.
- EAEko Barne Arroen gizakion kontsumorako ur ekoizpenera bideratutako uren kontrol-sarea.
- Kostaldeko bainurako eremuetako kontrol bakteriologikoa.

Sare horien helburua ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da; horiek guztiak UEZek ezarritako kontrol-eskakizunak aintzat hartuta. Lan horien emaitzak beti eskuragarri dira webgunean. Sare hauen helburua garrantzitsua da oso, uren kudeaketan informazio-pilatze horrek honako hauek ahalbidetzen dituelako: ingurumen-helburuak ezarri edota berrikustea; Plan Hidrologikoetan ezarritako neurrien programak ebaluatzea; eta, azkenik, baimenak eta emakidak kudeatzeko oinarri izatea.

Plangintza hidrologikoaren arloan eskumenak dituzten administrazio eta erakundeekin koordinatzeko, eta elkarlanean aritzeko lanetan jasotako informazioa estatu mailan eta Europa mailan eskaintzeko beharrari erantzun zaio: OSPAR Hitzarmena, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa diotenari jarraiki, beste batzuen artean

Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela jotako eremuetan **jarraipen bereziak** egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ihobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten gainazaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehaztuak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Loiolan, etab.

**Zebra muskuiluaren** (*Dreissena polymorpha*) inguruko lanekin jarraitu da. Lan horiek, EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordearen jarduera barruan burutu dira. Egindako lanen artean: EAEko ur-masetako zebra muskuiluaren larbak eta ale helduen kontrola; espezieak tokiko ur-gezako kuskubiko (nayadeak) populazioetan duen eragina aztertzea; espezie honek eragindako ur-masetan egiten den nabigazio eta beste jarduera batzuk arautu eta ikuskatu; triptiko dibulgatibo eta desinfektatze protokoloen hedapena, espezie honen hedapena ekiditeko informazio praktikoarekin.

Plangintza hidrologikoak ezartzen dituen emari ekologikoen erregimenak betetze aldera abian jarri da EAEko Barneko Arroetako geratzen diren ur-aprobetxamendu nagusietan emari ekologikoen etengabeko kontrola. Horretarako 160 aforo egin dira ondorengo unitate hidrologikoen arto nagusietan: Barbadun, Ibaizabal, Butroe, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Oiartzun eta Bidasoa

### 6.1.3. Informazio-sistemak

2014. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA-URA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu dugu GeoEuskadiren barnean. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabalduak datu eskuragarriak areagotu dira.

Halaber, URAREN aplikazio informatiko guztietara moldatuko den informazio geografikoko bisore baten bitartez, informazio geografiko eta alfanumerikoaren integrazeari ekin zaio URAk dituen datu-mantentze aplikazio guztientzat. Horrekin batera URAREN datu base korporatibo bat sortzeko lanei ekin zaie, eta bertan, zeharkako datu entitate guztiak kokatuko dira.

Bestalde, tokian bertan datuak jasotzeko lanen inguruan, 2013an Uraren Euskal Agentziaren ibai-ikuskatzaileei tokian bertan informazioa jasotzeko gailu eramangarriak eman zitzaizkien. Tokian bertan informazioa kontsultatzea zein datuak biltzea ahalbidetzen duten PDA motako ordenagailu eramangarriak dira. Gailuek, gainera, geokopapeneko GPS tresna dute, eta baita argazki- eta bideo-kamera edo datuak GPRS bidez bidaltzeko aukera ere. 2014an hainbat hobekuntza egin dira datuak biltzeko programetan, eta datuen igoera/jaitsiera prozesuetan eta horien erabilpenean. Halaber, arlo horretan aurreratu egin da lagin-hartze eta zaintza planen ezarpenean.

Bestalde Informazio geografikoa koordinatu-sistema berrira (ETRS89) egokitze lanak amaitu dira, 2015rako betetzea derrigorrezko lana. Horrek, informazio geografikoaren geruzetan koordinatu-sistema zein koordinatuak tauletan eta datu-baseetan aldatzea eskatzen du.

## 6.1.4. Lankidetzta-hitzarmenak

2014. urtean bestelako lankidetzta-hitzarmenak sinatu edo garatu dira ondorengo erakundeekin, oro har, ekosistema urtarrak babestu eta/edo hobetzeko helburuekin:

Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI - Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzta-hitzarmena, besteak beste, honako helburu hauekin: EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzeko, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemak nariatzea prebenitzeko eta horien egoera hobetzeko, eta EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako kostaldeko eremuen kudeaketa hobetzeko ekintzak burutzeko. Hitzarmen honen barruan, 2014rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira:

- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- Biodibertsitatea eta ingurumen-egoera Europar Itsas-Estrategiaren Zuzentarauan: DEVOTES Proiektua.
- EAEko bi arrotan angulak lekuz aldatzea.
- Eutrofizazio presioen ebaluazioa eta trantsizio uretan fitoplanktona ebaluatzen metodo baten garapena.
- Euriak eragindako epe laburreko kutsadura gertakarien analisia EAEko kostaldeko bainurako eremuetan.
- Kutsatzaile zehatzen azterketa ondorengo trantsizioko ur-masen inguruan: Bidasoa (tributil estaño) eta Ibaizabal (hexakloroziklohexano).
- Itsas-belarren inguruko lanak: landatzearen ondorengo jarraipena
- EUIS: Euskadiko uren informazio sisteman itsas-inguruneke jarraipen sareen datuak gehitu.

Uraren Euskal Agentziak parte hartzen du Caicedo Yusoko LIC-aren ingurumena leheneratzeko proiektuan, Arabako Foru Aldundia eta HAZIrekin batera, **TREMEDAL** Life Proiektuaren barruan. Proiektu horren helburua da Iberiako Penintsularen iparraldeko zenbait hezegune kontinentalen egoera hobetzea. Horien ezagutza, leheneratze eta babesa hobetzeko ekintzak abian jartzen dira, eta horrekin batera gizartearen informazioa eta sentsibilizazioa garatzeko.

2014an "Pirineotako mendebaldeko muturreko mugaz bestaldeko erreken tokiko partehartze-kudeaketa integrala" proiektuaren garapenean lan egiten jarraitu dugu, **GURATRANS**, POCTEFA 2007-2013 Programan kokatua. Proiektu horretan EAEko administrazioek hartzen dute parte, (URA, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hazi), Nafarroako Foru Erkidegoa (Nafarroako Gobernua, Crana Fundazioa) eta Iparraldekoak (Agglomération Sud Pays Basque, Agence de l'eau Adour-Garonne). Xedea da era bateratua burutzea plan hidrologikoetan jasotzen diren hainbat neurri: horrelako esparruek dakartzaten hobekuntzak indartzea, eta erakunde eskudun guztien koordinazio egokia eta herritarren parte-hartzea sustatzea.

Ekintzak mugaz-gaindiko eta erkidego arteko bost ibaitan kokatzen dira: Bidasoa, Nivelles, Urumea, Araxes eta Leitzaran. EAEn egingo diren ekintzen artean, Leitzaran ibaiko Inturiako presaren eraispena azpimarratu behar da ingurumenerako izango dituen ageriko onurengatik. Lan horren lehenengo fasea 2013an egin zen, eta eraispen lanekin jarraitu dugu (bigarren fasean) 2014ko abuztuan. Horrez gain, urte honetan zehar lurralde bakoitzean uraren kudeaketan eman diren esperientziak edo jarduera egokiak biltzen dira, eta uraren alorrean sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzeko ekintzak aztertzen dira; bai eraginkortasunera eta ur kontsumoa murriztera bideratuak, bai ibai-ekosistemen nariadura ekidite aldera.

BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi



Nabarmendu beharra dago, GURATRANS proiektuaren amaierako mugarrigisa, *Partekatutako uren kudeaketarako gutuna sinatu zutela* abenduaren 15ean honako erakunde hauek: Agglomération Sud Pays Basque, Niveko sindikatua, Agence de l'eau Adour-Garonne, Pyrénées-Atlantiques-etako Batzorde Orokorra, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Fortu Aldundia eta Uraren Euskal Agentzia. Gutunaren helburua da baliabide hidrikoen kudeaketan lankidetzaren sustatzea administrazioen artean, ibaien uren erabilera jasangarri, ekitatibo eta koordinatuago bat lortzeko.

## 6.2 eBALUAZIOA

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txostena egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplikatu dezakeen arau multzora egokitzen dela egiaztatzeko. Lan hori Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin lankidetzaren estuan garatzen da eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena egitea.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua I letrari jarraiki (*Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera*).
- Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua k) letrari jarraiki (*Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera*).



- Hirigintza-espedienteen txostena udalen behin-behineko onespeneraren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espedientea behin betiko onartu baino lehen.
- Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, abeltzantza jarduetarako baimenen izapidetzeri buruzkoa txostenak 515/2009 Dekretua jarraiki, eta abar.

2014an zehar espediente hauen gehiengoa espediente kudeatzailearen kodeekin erregistratu dira, baina batzuk oraindik kode zaharrarekin erregistratu dira, eta ezberdin sailkatu dira

Horrela, ebaluazio-arloaren 2014ko jarduera, honela laburbil daiteke azterturiko espedienteen zifrari dagokionez, espediente kudeatzailea martxan jarri ondoren, eta, beraz, kode berriekin (IAU: ingurumen eta hirigintza txostenak; IEC: uren emakiden txostenak)

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin loturiko 110 espediente, batez ere aprobetxamenduen administrazio-erregularizatzearekin, plangintza hidrologiakoarekiko onspen-txostenekin, eta abar.
- Ingurumen eta hirigintzari loturiko 128 espediente. Hirigintzaren kasuan Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean esparruan txostena egin aurreko faseetan.

- Hirigintza-planteamenduen berrikuspenari loturiko 80 espediente. Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean esparruan, espedientea behin betiko onartu baino lehen.
- 12 espediente lurren kalitateraren adierazpen proposamenei edota eragile kutsatzaileak dauden tokietan indusketak egiteko baimenei loturikoak; 4 espediente abeltzantza jaduaren lizentziei loturikoak; 3 espediente harrobi/zabortegeien kokapenaren egokitasunari buruzko kontsultei loturikoak.

Bestalde, Ebaluazioaren arlo honetatik burututako beste jardueretako bat Uraren Euskal Agentziaren lanen arloari laguntzea izan da, ondorengo obretako ingurumen-arloko izapideak egiten:

- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektu eguneratua. II. Fasea. Urbi-Bengoetxe tartea.
- Donostiako Martutene auzoaren parean, Urumea ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Gasteizko udal-barrutian Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen kontrako defentsa egiteko proiektua
- Vitoria-Gasteizen, Abetxukoko zubi zaharraren birgaitzea
- Zadorra ibaiaren uholdeei aurre hartzea. II. Fasea Abetxukoko zubia - Gamarra Nagusiko zubia
- Gaubea udalerriko (Araba) Osma herrian, Tumeçillo ibaia ubideratzeko proiektua

Halaber Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin batera lan egin da hainbat presa txiki iragazkor egiteko proiektuak aztertzen, arrainen mugikortasuna hobetzeko helburuarekin

Plangintza eta Berrikuntza arloarekin batera lan egin da Urola ibaian angiren beheranzko migrazioan zentral hidroelektriko batek duen eragina murrizteko aukera ezberdinak aztertzen.

Azkenik, 2014an zehar, Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin batera, aldizkako bilerak egin dira Kantauri Ekialdeko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinatzeko: zehazki, hirigintza- eta ingurumen-txostenak egiteko orduan, Erkidego arteko Arroetan kokatutako proiektu eta planen inguruko kontsultei loturikoak.

## 6.3 Uholdeei aurrea HARTZEA


### 6.3.1. Uholde-arriskuaren ebaluazio ETA KUDEAKETA EAEN

Uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzko Europako Parlamentuaren 2007/60/CE hirugarren eta azken fasea gauzatzea izan da 2014. urtearen mugarrria arlo honetan.

Aurrekariak azaltze aldera. Lehenengo fasea Uholde Arriskuaren Aldez Aurretiko Ebaluazioa (UAAE), EAEko barneko arroi dagokienez, formalki 2011an onartu zen URAREN zuzendari nagusiaren abenduaren 13ko ebazpenaren bitartez; Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Erkidego Arteko Arroei dagokienez, Uraren zuzendari nagusiak onartu zituen 2011ko abenduaren 14an, eta horiekin

batera Kostalde eta Itsasoaren Jasangarritasunerako Zuzendaritza Nagusiak kostaldeko uholdeen inguruan prestatutako informazioa.

Bere aldetik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2011ko ekainaren 1ean kontsulta publikora zabaldu zituen, gutxienez hiru hilabetez, bere eskumenekoa den eremuko UAAE-aren agiriak.





Bigarren fasea —aurreko fasean Uholde Arrisku Handiko Eremua bezala izendatutako eremuetan uholde-arriskugarritasun eta arrisku mapak egiteko baliatu behar zena—, 2013ko abenduaren 19an amaitu zen, EAEko Barneko Arroei dagokienez, Erabiltzaileen Batzarraren aldeko txostena jaso ondoren.

## URAREN AHOLKUA

Ikusi

Kantauri eta Ebroko eskumeneren eremuei dagokienez, 2013ko azaroan eta 2014ko urtarrilaren 10ean hasi zituzten haien kontsulta publikorako epeak, hurrenez hurren.



Aurrekari horiek guztiak abianpuntutzat hartuz urte honetan zehar EAEko Uholde Arriskuaren Kudeaketa Plana landu dugu, eta 2014ko abenduaren 18an URAREN zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez, EAEko Barneko arroen agiriak kontsultagai jarri ziren.

Kudeaketa Planaren helburua bikoitza da:

- Gaur egun dagoen uholde arriskua ez handitzea. Horretarako, arazoa hobeto ezagutzen jarraitzeaz gain, neurrien zehatz batzuen alde egiten dugu: lurraren erabilerak uholde arriskuarekin bat egin dezaten ahalbidetzen dutenen alde.
- Arrisku hori murriztea hainbat ekintza programen bitartez, batez ere uholde arrisku handiko eremuetan oinarrituta.


Programa horiek uholde arriskuaren kudeaketaren oinarritzko hiru irizpide izan beharko dituzte kontuan: lankidetzeta, koordinazioa, administrazio arteko elkarlana eta ingurumenarekiko begirunea.


Betebehar horiei erantzuteko, Planaren ondorengo helburuak lortze aldera egituratu da:

- Uholde Arriskua hautemateaz gain, populazioaren, giza-eragileen eta eragile-ekonomikoen artean, bere burua babesteko estrategiak gehitu.
- Arriskuaren kudeaketan ari diren eragile guztien arteko koordinazio administratiboa handitu.
- Ezagutza hobetu uholde arriskuaren kudeaketa egokia lortzeko
- Ur-goraldi eta uholde gertakarien aurrean iragarpen ahalmena hobetu.
- Lurralde antolaketa eta uholde arrisku eremuetan dauden erabilpenen kudeaketa hobekuntzan parte hartu.
- Ahal den heinean, uholde arriskuaren murrizketa lortu gizaki, jarduera ekonomiko, ondare kultural eta ingurumenaren uholde arriskugarritasunaren murrizketaren bitartez.
- Erresilientzia hobetu eta uholde arriskuko eremuetan kokatutako elementuen kalteberatasuna murriztu.
- Ur-masen egoera egokia mantentzen edo hobetzen lagundu.

Egindako lanen artean, antzemandako Uholde Arrisku Handiko Eremuen (ARPSIs) karakterizazio zehatza lortzea egon da, eta horietan lan egiteko lehenetsunaren analisia. Horren arabera lau talde sortu dira: lehenengo talde


batean arrisku oso altuko ARPSI-ak edota kalte izugarriak izan dezaketenak nahiz errepikatze-denbora txikiko gertakariak paira ditzaketenak. Horrela, arriskua jaisten joango litzateke talde mailan jaisten garen heinean.





BA AL ZENEKIEN...?

Ikusi




Uholde Arriskuen Kudeaketa Planak berezkoak dituen agiriez gain, uholde arriskuen kartografia lortu da, aurretik genituenak eguneratu edo berriak sortu ondoren. Gaur 950 km arroko zabalerara heldu gara, antzemandako ARPSIak betetzen dituzten 400 km-en bikoitza. Informazio horren guztiaren zati bat dagoeneko argitaratua dago URAREN bisorean, eta 2015ean guztia egotea aurreikusten da. Ohiko kartografiari modelazio hidraulikoaren datu nabarmenenak erantsiko zaizkio.

60/2007 Zuzentaraua estatuko araudira egokitzen duen 903/2010 Errege Dekretuan ezarritako betebeharren eta egutegiaren harira, EAE barne hartzen duten Demarkazio Hidrografikoen Uholde Arriskuen Kudeaketa Planak 2015ko abenduaren 22a baino lehen onartuak beharko dute.

Uholde arriskua handitzea ekiditeko helburuari dagokionez, 2014an zehar 157 eskari jaso dira hainbat motatako txostenak egiteko, horien artean bateragarritasun edo eraginaren analisisien edota azterketa hidraulikoen balidazioen ingurukoak, eta beste 8 1 uholde arriskuaren inguruko informazio eskaerak, era zabal batean.


### 6.3.2. AURREIKUSPEN ETA ALERTA HIDROLOGIKOEN SISTEMA (UHATE)

2014an zehar sistemak alertak sortu ditu euri-gogorretako bi gertakariaren barruan, urtarrilean eta martxoan. Horrelakoetan kasuetan derrigorrezkoa da, bi kasuetan Larrialdi eta Meteorologia Zuzendaritza jakinaren gainean jartzea gertakariaren bilakaeraren simulazioaren emaitzak ibai eta urtegiaren kokatutako kontrol puntutan. Hala ere, ez da beharrezkoa ikusten horrelako kasuetarako presta dagoen larrialdia-mahaia deitzea.



## URAREN AHOLKUA

Ikusi



Pantaila osoan ikusteko

Urtarrilaren 24 eta 26ko denboralean ibaien maila altuena kantauriar arroetan espero zen hainbat estazioetan maila hori edo laranja heltzeko aurreikuspenarekin; hala ere, euri gogorak izateko iragarpenak mediterranear arroetara ere zabaldu ziren, hain zuzen ere Zadorra urtegiko eremuan. Kasu horretan, prebentziozko urtegi-hustuketan simulazioa egiten da, baina azkenean ez da beharrezkoa ikusten urtegia ustiatzeko ezarritako protokoloaren urratsak aldatzea.

## 6.4 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu plangintza hidrologikoan aurreikusitako zenbait helburu lortzeko: ur-masen egoera ona eta babes egokia, ur-eskariei erantzutea, uholdeen aurkako defentsa, eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek egokituta hainbat gauza lortzen dira, hala nola: kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2013. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Oiongo saneamendu-sarearen 2. eta 3. faseak bukatu dira.
- Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan jarduketa hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenean barne hartuta dauden proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.
- Abetxukoko pasabidea handitzeko lanak amaitu dira.
- Eskuernagako Hondakin Uren Araztegia egiteko lanak amaitu egin dira, eta era berean, Leza-Navaridarako saneamendurako kolektorea egin da, Arabako Foru Aldundiaren Zuzendaritzapean.

- Nerbioi-Ibaizabal ibaia Bolueta-Urbi tartearen ubideratzeko proiektua bukatu egin da. Gainera, egin beharreko hurrengo tarteak, Urbi-Bengoetxeko lanak aurrera darraite.
- Gobela ibaiaren egokitze hidrauliko eta ingurumenaren hobekuntza lanak jarraitzen dute Errekagane tartearen, Getxon.
- Areatzan, Arratia ibaia egokitzeko lanak jarraitzen dute
- Ermua-Mallabia saneamendua bitan banatzeko obraren 1. Fasea amaitu da.
- Donostiako Loiola auzoan, Euskotren Zubia ordezkatzeko obrak bukatu dira
- Santa Catalinako kolektorearen azken urratsak amaitu dira, Añarbeko Urak erakundearen zuzendaritzapean
- Hernanin, Karabel zubi ordezkatzeko lanak amaitu dira
- Donostian, Rekalde eta Errotaburu artean, Añorga erreka uholdeez babesteko eta saneamendua egiteko proiektuaren behin behineko etenaldia amaitu eta aurrera egin da.

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Ur Agentziari dagokio, barne-arroetako, zein barne-arroetakoak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikusi eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da.

## 6.5 Partehartze, formakuntza eta sentsibilizazioa

2014an Uraren Euskal Agentziak jarraitu egin du uraren arloan parte-hartze, formakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatzen eta abian jartzen. Hori guztia gizartearen pentsamodu-aldaketa sustatzen laguntzeko, nazioarteko ingurumenaren inguruko legeek eta UEZ-ak diotenari jarraiki, aurrera eginez ingurune urtarraren kudeaketa partehartzaileago eta ekosistemiko baterantz.

**Parte-hartzearen** inguruan, nabarmendu behar da 2015-2021 plangintza hidrologikoaren bigarren zikloko Gai Nagusien Behin-behineko Eskema parte-hartze prozesua. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren plangintza hidrologikoaren bigarren ziklorako parte-hartze aktiboaren prozesuaren irizpideak ezartzen dituen parte-hartze gidan oinarrituta, hainbat tailer prestatu dira Plan Hidrologikoaren berrikuspenean aztertu beharreko gai nagusiak jorratzeko, eta demarkazio horretako uraren kudeaketan parte-hartzen duten eragile nagusiak ere bertan egonda. Ingurune-urtarrari buruzko hainbat gairen inguruko dibulgazio materialak jorratzen jarraitu dugu. Nabarmendu behar dira, halaber, Guratrans proiektuaren esparruan egindako kuaderno eta dibulgazio agiriak: Inturiako presaren eraispinari buruzko bat *“La demolición de la presa de Inturia: un paso adelante hacia una nueva relación con nuestros ríos”* eta ibaietan zur-egiturak sartuz egindako ibilguten hobekuntza lanak *“La mejora del cauce mediante la introducción de madera en el río Urumea. Entorno de Pikoaga”*.

BA AL ZENEKIEN...?


Ikusi



Horrez gain, beste dibulgazio-kuaderno batzuetan ere lan egin da “*Gobernanza en la gestión del agua*”, “*La Gestión del Territorio Fluvial*” eta “*La gestión sostenible del agua en el ámbito local*”; edo laburpen dokumentuak prestatu dira Oria, Urumea eta Bidasoa arroaren inguruan. Agiri horiek guztiak proiektuaren webgunean kontsultatu eta jaitsi daitezke:

<http://www.guratrans.eu/eu/> 

**Ur-ibilbideak** gida amaitu da, lan horrekin balioetsi eta ezagutzera eman nahi dira EAEko ibaietatik egin daitezkeen 48 ibilbide xarmangarri. Webgunean kontsultatu eta jaitsi daitezke:

[http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003754/eu/contenidos/informacion/2013\\_senderos/eu\\_def/index.shtml](http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-0003754/eu/contenidos/informacion/2013_senderos/eu_def/index.shtml) 

2014an, URAK parte hartu du zientzia eta dibulgaziorako hainbat jardunalditan ingurune-urtarraren inguruko hainbat gairen inguruan. Nabarmendu behar dira, beste batzuen artean:

- Mahainguru batean parte-hartzea Agua, ríos y pueblos San Telmo museoa, martxoaren 20an Donostia-San Sebastián.
- Gai nagusien behin-behineko eskemetan lurpeko uren inguruko jardunaldian parte-hartzea, estatuko hidrogeologoak antolatutak. Madrid, maiatzaren 7 eta 8a.
- Mahainguru honetan parte-hartzea: Planificación Hidrológica y participación pública, Ingurumenaren inguruko Kongresu Nazionalean CONAMAn . Madrilen azaroaren 26an.
- Ebroko Arroko Plan Hidrologikoaren inguruko Foro Tekniko eta Herritarrean parte hartu. Abenduaren 2an Universidad Rovira i Virgili.
- Nueva Cultura del Agua Fundazioaren Uraren Politiken inguruko Ikuspegiarekin elkarlanean aritu, 2009-2015 Plangintza Hidrologikoaren Lehenengo Zikloaren ebaluazioaren galdetegiaren inguruan

Ingurune urtarraren inguruko sentsibilizazio ekimen horiek oihartzun handiagoa lortu zezaten 2014an hitzarmena sinatu da EITBrekin hainbat irrati kuina emateko uraren eta ingurune-urtarraren inguruko mezuak eskaintzeko.

Halaber, hitzarmen horren barruan hainbat bideo prestatu dira, hainbat gairen inguruan: zer da ibaia, zer da ibaia garbitzea, ur-hartzea, ibilguak artifizial egitea, ibaien mantentze lanak, ur-goraldiak, lurraldearen kudeaketa eta uholde arriskuak eta horien kudeaketa.

2009an hezkuntza arloari zuzendutako formakuntza eta sentsibilizazio estrategia bat jaio zen dibulgazio-hitzaldi eta ibai-gelekin, eta jarraitzen dute.

*Ura inork eta ezerk hautsi behar ez lukeen ispilua da. Urak bizitzaren jatorriaren aurretik etorkizun emankor baten alde lan egiten du: guztiok merezi dugun etorkizun horren alde.*

JOAQUÍN ARAÚJO



2014ko  
Memoria



PERTSONA HELBURU



# Uraren euskal agentziaren 2014KO Memoria



PERTSONA  
HELBURU

